

Asisko gutuna

2019ko iraila.

3. printzipioa. Eguneroko bizimodua: kanporantz, elkartasuna

131. zenbakia

Kainek Abel hil zuenean, Jainko Jaunak kontuak eskatu zizkion galdetuz “Non duk hire anaia?”. Gaur egun hemen gabilta Jainkoaren aurrean Abel bagina bezala, kontzientzia lasai dugula, inoiz galdetuko ez baligu bezala “non da zure anaia/arreba?”, inoiz konturik eman beharrik ez bagenu bezala zeren guk ez dugu ezer txarrik egin, eta ez dugu zerikusirik hainbat pertsonen egoerekin.

Gogoetarako gaia

Solidaritatea eta informazioa

Horrenbeste berri, datu, iruzkin, iritzi ikerketa eta abarren erdian bizi gara, eta oso zaila egiten zaigu aztertzea zer den egia eta zer ez. Hau guztia solidaritate arloan gehitu egiten da, eta gehiago etorkinekiko. Bihotzak buelta ematen digu biziaren eta herioaren jomugako irudiak ikustean: harresien gainteko jauziak, familia osoak itsasotik atereak, gerra eta gosetetik ihesean diren gizon eta emakumeen amaigabeko ilerak... Iristen zaizkigu baita lapurretak egiten dituzten etorkinen berriak, inolako gizatasunik gabe jokatzeko dutenenak, laguntza instituzionalerik iruzurrez baliatzen direnenak, gatazka erlijiosoak sortzen dituztenenak... honek guztiak beldurra eta kanpotar ezberdinekiko mesfidantza sortzen du bat baino gehiagorengan.

Tamalez, esaten den guztia egia izatetik urrun gaudu; erdizkako kontuetan gabilta sarri. Intentzio zehatzez botatako berriekin aurkitzen gara. Eta hau argi eta ozen esan beharra dago: etorkinen inguruan gezur borobil asko dabil. Esaten digutenak -zer eta nola-, gero gure pentsamolde eta jokaeran, gure solidaritatean, zerikusi handia dauka.

Horregatik, gure elkartasun ekintzak, ahal dugun heinean behintzat, iristen zaizkigun berrietan zer eta zenbateraino den egia aztertzea eskatzen digu. Horretarako badira galdera gutxi batzuk iristen zaizkigun berrien aurrean egin beharrekoak. Honako hauek izan daitezke horietako batzuk:

- Nork ematen du berria, non agertu da (egunkari, irrati, telebista...). Zenbat eta iturri fidagarri gehiago izan, berriak egiazkoa izateko probabilitate gehiago ditu.

- Ahalik eta gehien ezagutzen saiatu testuingurua, egoera, denbora eta gertakariaren lekua. Testuingururik gabeko gertakariak nahasmenera daramate.

- Inoiz ez da aski izenburua irakurtzea. Izenburuek ez dute informatzen, arreta erakarri baizik.

- Zitek (“halakok esan du”) ez dute balio non eta noiz zehazten ez bada.

Jesusek esana zigun: “Izan zaitzete sugeak bezain zuhur eta usoak bezain xalo”. Jasotzen dugun informazioa kontrolatzen ez dugun garaiotan, elkartasun ekintza dugu beharrean aurkitzen diren pertsonen egia bilatzea.

Bibliako pasartea: Dt 24,14-15.19-22

Ez duzue jornalari dohakabea eta behartsua zurrupatuko, nahiz herritarra, nahiz zuen herrialdean, zuen hiri berean, bizi den etorkina izan. Egunean eguneko lansaria emango diozue, eguzkia sartu baino lehen; izan ere, behartsua da eta premia-premiazkoa du soldata. Bestela, deiadar egingo dio Jaunari zuen kontra eta errudun izango zarete.

Uzta biltzean, gari-balarik soroan ahaztuta uzten baduzue, ez itzuli haren bila. Etorkin, umezurtz eta alarguentzat izango da, Jaunak zeuen Jainkoak eginkizun guztietan bedeinka zaitzaten. Olibondoak astintzean, ez itzuli adarretan geldituriko olibak biltzera. Etorkin, umezurtz eta alarguentzat izango dira. Mahats-bilketa egitean, ez itzuli atzean utzitako mahats-hondarrak biltzera. Etorkin, umezurtz eta alarguentzat izango dira.

Frantziskotar espiritualtasuna

Anaiak Borgo San Sepolcroren gainean duten eremitorioan, ogia anai-arrebei eskatzera lapur batzuk, batzuetan, etortzea gertatu zen; probintziako baso handietan ezkutatuta bizi ziren, baina noizean behin haietatik irteten ziren bidaiariei galtzadan edo bideetan dena kentzeko. Lekuko anaia batzuek zioten: "Ez dago ondo guk hauei limosna ematea, gizakiei halako gaitz handiak dakarzkieten bidelapurak direnez gero". Beste anaia batzuk, limosna apaltasunez eta behar handiak behartuta eskatzen zutelak kontuan hartuz, inoiz laguntzen zituzten, haiek bultzatuz, gainera, aldatzera eta penitentzia egitera.

Bien bitartean zorioneko Frantzisko eremitoriora iritsi zen. Eta anaiak bere iritzia eskatzen ziotenez, esan zien: «Zuek ogi onaz eta ardo onaz hornitzera joan zaitezte eta eraman itzazue basora, haiek bizi direla dakizuen tokira eta oihuka ezazue: "Etor zaitezte, anaia bidelapurrak! Zuen anaiak gara eta ogi ona eta ardo ona ekarri dizkizuegu". Berehala zuen deira joango dira. Gero egin iezaiezue, Jaunaren maitasunagatik, lehen eskaria: hitzeman diezazuetela ez diotela inori kalterik egingo Jaunaren izenean. Bidelapurrek berehala hitzemango dizute zuen apaltasunak eta erakutsi diezuen maitasunak mugiarazita.

Otoitza

Jauna, eman iezaguzu argia
engainatzen ez uzteko
ez itxura onengatik,
ez hitz adeitsuengatik,
ez jokamolde finengatik,
ez modako diskurtsoengatik,
ez pelikuletako irribarreengatik...

Erakutsi iezaguzu balioesten eta bizitzen
austeritatea eta solidaritatea,
gutxi entzun nahi duten egia,

maitasuna keinu bakoitzean,
besteengatiko sakrifizioa
neuririk gabe emandako bizitza...

Zuk esan diguzu:
"Bere fruituengatik ezagutuko dituzue"
Eta nire barnean pentsatzen dut:
"Nire fruituengatik ezagutuko naute".
Jauna, eralda nire bihotza,
fruitu onak emateko
gehien behar dutenen zerbitzuan.

Gutuneko azken hitzak

"Informazioa negozioa zela konturatu zirenean egiak garrantzia galdu zuen" (R. Kapuscinski)

2019ko iraileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate iraileko erreferentzia guztiak:

1 Lk 14, 1,7-14	7 Lk 6,1-5	13 Lk 6, 27-38	19 Lk 7, 31-35	25 Lk 8, 19-21
2 Lk 4, 16-30	8 Mt 1,18-23	14 Jn 3, 13-17	20 Lk 7,36-50	26 Lk 9, 1-6
3 Lk 4,31-37	9 Mk 7,31-37	15 Lk 2, 33-35	21 Mt 9,9-13	27 Lk 9, 7-9
4 Lk 4, 38-44	10 Lk 6,6-11	16 Mk 8, 27-35	22 Lk 8, 4-15	28 Lk 9,18-22
5 Lk 5, 1-11	11 Lk 6, 12-19	17 Lk 9,23-26	23 Mk 9,29-36	29 Jn 1, 47-51
6 Lk 5,33-39	12 Lk 6, 20-26	18 Lk 7, 11-17	24 Lk 8, 16-18	30 Mk 9, 38-47

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Iraileko otoitza
26an izango da